



ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

eremu ia zabal zaku






Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERIKONIA DEMOGRAFIAKORTZEN SAIA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

 **MIGRAZIOARAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA**
**PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN**

iraila ■ 2024

Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen





Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen

Julia Shershneva Zastavnaia
Editorea

CIP. Biblioteca Universitaria

Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen [Recurso electrónico] / Julia Shershneva Zastavnaia, editorea ; Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de Inmigración. – Datos. – Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2024. – 1 recurso en línea : PDF (340 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

En la cub.: Ikuspegi, UPV/EHU y Gobierno Vasco, Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

ISBN: 978-84-9082-814-4.

1. País Vasco – Emigración e inmigración – Siglo XXI. 2. País Vasco – Emigración e inmigración – Aspecto social. I. Shershneva, Julia, ed. II. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua: 2024, Bilbo

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Dokumentazioa: Antonio Gómez Parada, *Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia*

Diseinua eta maketazioa: Emilia Oleaga

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.


ISBN: 978-84-9082-814-4

Argitalpen hau nola aipatu:

(APA 7 arauen arabera)

Shershneva Zastavnaia, Julia (Ed.) (2024). *Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/200_4.pdf





Etxegabetasuna Euskadin, azken 20 urteotan

Miguel Angel Navarro-Lashayas
Deustuko Unibertsitatea

Kapitulu hau hasteko, zuen baimenarekin, azalduko dudan gaiarekin lotura handia duen pasadizo bat kontatuko dizuet. 2004. urtea zen, eta Madril en nengoen, nire doktorego-ikasketak hasten. Nire doktorego-tesiaren ideia gidaria aurkeztu behar nuen ebaluazio-batzorde baten aurrean. Etxerik gabeko migratzaileak ziren gai nagusia, eta horrek eztabaida sortu zuen batzordean bertan. Etxerik gabeko migratzaileak kolektibo bat dira? Berariaz aztertu behar al dira? Ez al da hobe aztertzea zer aukera dituzten pertsona migratzaileek etxebizitza eskuratzeko? Migratzaile baten integrazio-prozesuan, ez al da prozesuaren alderdi zehatz bat etxebizitzaren arloan egonkortasuna aurkitzea?

Batzorde horretan sortu zen eztabaidarekin batera, garai bertsuan, Etxerik Gabeko Pertsonen alde lan egiten duten Erakundeen Europako Federazioak (FEATNSA) honako hau adierazi zuen 2002ko txosten batean: *“etxerik gabeko etorkinen kopurua gero eta handiagoa da eta, bestalde, egoera bideratzeko politika eraginkorrak falta dira; horrek etxerik gabeko etorkinak lehentasunezko leku batean jarri ditu etxerik gabekoentzako zerbitzuen agendan”*. Horrez gain, berariazko azterketak egiteko eskatu zien estatu kideei. Bilboko Elejabarri udal-aterpetxeko 2004ko datuen arabera, 2.820 pertsona artatu ziren guztira. Horietako erdiak atzeritarrak ziren, eta Estatistikako Institutu Nazionalak hurrengo urtean Espainian etxerik gabe zeuden pertsonen kopuruari buruz egindako inkestaren arabera (EIN, 2005), ia % 50 ziren egoera horretan zeuden atzeritarrak. Proportzioak etengabe egin du gora azken 20 urteotan; beraz, inoiz baino egokiagoa da fenomenoaz aztertzea.

Zer da etxerik gabeko pertsona bat?

Ez dago etxerik gabeko pertsonaren definizio ofizialik. Hala ere, Europa mailako datu guztietarako, ETHOS tipologia (European Typology on Homelessness) hartzen da etxegabetasuna aztertzeko esparru kontzeptual gisa. Tipologia horretan, Avramovek (1996) proposatutako definizioa hartzen da abiapuntutzat. Horren arabera, etxegabetasuna *“modu iraunkorrean bizitzeko leku egoki bat ez izatea”* izango litzateke, eta pertsona etxegabeak, berriz, *“bizitzeko leku egoki bat modu iraunkorrean eskuratu ezin duten pertsonak dira, edo bizitoki horri eutsi ezin diotenak, dela arazo ekonomikoak edo beste gizarte-hesi batzuk dituztelako, dela modu autonomoan bizitzeko zailtasunak izan eta arreta behar dutelako, baina instituzionalizatu gabe.”*

Etxearen kontzeptuaren ikuskera multidimentsional batetik abiatuta egiten da lan, eta, horren arabera, hiru eremuk edo domeinuk bat-egitearen emaitza litzateke hori (Edgar, Doherty eta Meert, 2009):

1. Domeinu fisikoa: pertsona baten eta haren familiaren beharrak asetzeko etxebizitza (edo leku) egokia izatea. Bizigarritasun-baldintza fisikoak barne hartzen dira domeinu horretan, bai eta pilaketak eragindako baldintza desagokiak ere.
2. Gizarte-domeinua: pribatutasunari eutsi ahal izatea eta gizarte-harremenez gozatu ahal izatea etxeko pertsonekin eta etxetik kanpokoekin.
3. Domeinu legala: jabetza eksklusiboa, okupazioaren segurtasuna eta legezko titulua eduki ahal izatea.

Hiru domeinu horiek eskaintzen dituzten konbinazioetatik abiatuta, oinarritzko lau kategoria kontzeptual hauek ondorioztatzen dira ETHOS tipologian, eta horiek, aldi berean, 13 kategoria operatibotatik eta 24 egoera-azpikategoriatatik banatzen dira¹.

- Etxegabea: inolako bizitokirik gabea.
- Etxebizitarik gabea: aldi baterako ostatu batean, aterpetxeetan edo egonaldi ertain-luzeko bestelako lekuetan bizitzen.
- Etxebizitza ziurtatu gabe: etxegabetze-mehatxupearan, alokairu prekarioko egoeran edo genero-indarkeriako egoeretan bizitzen.
- Etxebizitza desagokia: txaboletan, bizigarritasunari buruzko araudia betetzen ez duten ostatuetan edo pilotze-egoeran bizitzen.

¹ ETHOS tipologia osoa hemen ikus daiteke: <https://www.feantsa.org/en/toolkit/2005/04/01/ethos-typology-on-homelessness-and-housing-exclusion?bcParent=27>

Continuum horretan kokatzen dira etxea izatearekin lotutako egoera desberdinak, hori ostatua hartzeko sabai bat eta lau pareta izatea baino gehiago dela kontuan hartuta. Beraz, egokia da galdetzea zer neurtzen den etxerik gabeko pertsonen buruzko estatistikak aztertzen ditugunean. Klean edo gizarte-erakundeetako aterpetxe eta pisuetan lo egiten duten atzerritarrak arazo askoz handiago baten icebergaren tontorra baino ez dira. Bizitegi-bazterketaren dimentsio guztiak kontuan hartzeko, zenbait alderdi aztertu beharko lirateke, hala nola, kontraturik gabe alokatzeko gelak, pilaketa-egoerak, lege kanpoko pentsioak, lagun eta senideen etxeetan “maileguan” bizitzea, bizigarritasun-baldintza nahikoak ez dituzten etxebizitzak, txabolismoa, etab. Genero-ikuspegia ere sartu beharko litzateke, emakume internoen eta sasoiko lanetan edo prostituzioan aritu eta lan egiten duten lekuan bertan bizi diren emakumeen egoera ikusarazteko.

Normalean, lehen bi kategoria kontzeptualak (etxegabea eta etxebizitzarik gabekoak) “etzegabetasuntzat” hartu ohi dira, eta beste biak (etxebizitza ez-segurua eta desagokia) bizitegi-bazterketatzat; estatistika guztiak “etzegabetasuneko” kategoriak hartzen dituzte ardatz, klean eta hainbat ostatu-baliabidetan lo egiten duten pertsonak kontuan hartuta.

Euskadin etxerik gabe dauden pertsona migratzaileei buruzko datuak

Espainian etxerik gabe dauden pertsonen kopuruari buruzko lehen datu ofizialak EINek argitaratu zituen, 2005ean, ostatu- eta/edo jatetxe-arloetako laguntza-baliabideei bidaltzen zaien inkesta batetik abiatuta. Datuen arabera, 2005ean, 21.900 pertsona zeuden Espainian etxerik gabe, eta horietatik % 48,2 atzerritarrak ziren. Horietatik, gehien-gehienak (% 86,3) gizonezkoak ziren. Lehen inkesta horretan, ez daude Euskadira datu zehatzak. Etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin du etengabe lehen inkesta egin zenetik: 2012an, 22.938 pertsona ziren, eta 2022an, berriz, 28.552. Atzerritarren proportzioak guztizkoaren % 50 izaten jarraitzen du, eta, haien artean, emakumeen proportzioak gora egin du etengabe (% 20ra iritsi da).

2012. urtetik aurrerako berrikuntza nagusia da EUSTAT elkarlanean hasi dela EINekin, Euskadira buruzko datu espezifikoak izateko. 1. taulan ikus daitekeenez, 2012tik gaur egun arte, ia hirukoiztu egin da etxerik gabeko pertsonen kopurua. Beste desberdintasun nabarmen bat Euskadiren kasuan: etxerik gabeko pertsona lokalizatu gehienak (% 72,4) atzerritarrak dira, Estatuan baino askoz gehiago.

Geure buruari galdetu diezaiokegu ea Euskadin etxerik gabeko pertsonen kopurua hainbeste handitu izana gizarte-bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonen

kopuru gero eta handiagoaren ondorioz gertatu den, ala asistentzia-estaldura hobea izatearen ondorioz. EINen beste inkesta bat dugu, asistentzia-zentroei buruzkoa, dauden plaza-kopurua eta okupazioa jasotzen dituen. Euskadin 1.372 plaza zeuden, eta 20 urte hauetan hirukoiztu egin dira, 4.313ra iritsi arte.

1. TAULA. EINEN INKESTAK ETXERIK GABEKO PERTSONEI BURUZ, 2005-2022 ALDIAN

		2005		2012		2022	
		Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%
Herritartasuna	Bertakoak	11.341	51,8	12.425	54,2	14.316	50,1
	Atzerritarrak	10.559	48,2	10.513	45,8	14.236	49,9
Sexua (atzeritarra)	Gizona	9.116	86,3	8.570	81,5	11.281	79,2
	Emakumea	1.444	13,7	1.943	18,5	2.955	20,8
Euskadiko modulua	Bertakoak	--	--	799	40,1	1.231	27,6
	Atzerritarrak	--	--	1.193	59,9	3.226	72,4
Plazak Euskadiko zentroetan	Edukiera	1.372*		2.523		4.313	
	Okupazioa	1.108*		2.047		3.410	

Iturria: EINen inkesta etxerik gabeko pertsonen buruzkoa, 2005, 2012, 2022, eta EINen inkesta etxerik gabeko pertsonen buruzkoa (zentroak) 2006, 2012, 2022

*2006ko datuak

Oso datu orokorrak dira, baina azken 20 urteetako joeraren bat adierazten dute, hala nola, etxerik gabeko pertsonen kopuruaren gorakada handia, baliabide erabilgarrien hazkundearekin batera, kolektiboaren barruan pertsona migratzaileak nagusi izanik.

EINen datuen gabeziak bat da baliabideei inkesta bat bidali eta erantzunak jaso baino ez dela egiten. Egoeraren ikuspegi errealistagoa izateko, “gaueko zenbaketa” deritzona sortu zen. Horretarako, gaueko egun batean, baliabide guztietan lo egiten duten pertsonak zenbatzen dira, baina miaketa bat ere egiten da kaleetan, kale gorrian edo ez-ohiko ostatu deritzonetan (kutzazainak, abandonatutako etxeak, etab.) lo egiten ari diren pertsonak ere zenbatzeko. Euskadin, gaueko zenbaketa horiek 2012. urtetik egiten dira, eta 3 hiriburu eta probintzia bakoitzeko udalerrak nagusietako datuak jasotzen dira.

Bestalde, gaueko zenbaketatik, EINen eta EUSTATen inkestetan ez bezala, zuzeneko datuak jasotzen dituzte, baliabideek informazioan esku hartu gabe, eta eragindako biztanleriari egindako inkestak ere barne hartzen dituzte. Horri guztiari esker, gaueko zenbaketak oso tresna baliagarria dira Euskadiko bizitegi-bazterketaren egoera aztertzeko. Ikus ditzagun orain arte egindako gaueko zenbaketa guztien datuak.

2. TAULA. EUSKADIKO BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIARI BURUZKO IKERKETAK 2012-2022

	Jatorria							Lo egiteko tokia: kalea eta ETHOS 2.1; 3.1*	
	Atzerritarrak		Ez-atzerritarrak		Zehaztu gabe		Guztira	Atzerritarrak (%)	Ez-atzerritarrak (%)
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.		
2012	911	53,5	515	30,2	278	16,3	1.704	69	31
2014	826	45	650	35,4	360	19,6	1.836	58	42
2016	871	43,3	644	32,1	494	24,6	2.009	63	37
2018	1.206	52	745	32	369	16	2.320	69	31
2020	1.809	64,7	967	34,6	34	1,2	2.797	72	28
2022	2.312	68,4	1.014	30	54	1,6	3.380	78	22

Iturria: SIIS. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlanak, 2012- 2022

* Hiru euskal hiriburuetakoko datuak. ETHOS 2.1. Gaueko aterpetxea edo aterpea eta 3.1 Aterpetxeak eta ostatu-zentroak

Ikuspegi orokor batek erakusten digu azken 10 urteetan nabarmen handitu dela etxerik gabeko pertsonen kopurua Euskadin: 2012an, 1.704 pertsona zenbatu ziren, eta 2022an, berriz, 3.380. Hala ere, ikerketaren egileek uste dute 2018. urtetik aurrera izandako hazkunde handia gizarte-babeseke sistemak arreta emateko duen gaitasun handiagoagatik izan dela, eta ez kale gorrian pertsona gehiago izatearen ondorioz.

Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen hazkunde globala atzeritarren pisu portzentual handiagoarekin batera gertatzen da; izan ere, 2012an bizitegi-bazterketa larriko egoeran zeuden pertsonen % 53,5 ziren atzeritarrak, eta 2022an, berriz, % 68,4. Atzeritarren proportzioa are handiagoa da egoera larrienetan dauden artean, hau da, kalean zuzenean daudenetan edo etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxeetan daudenetan; horietan, proportzioa ia % 80ra iristen da.

Beharbada, azken datu hori da aipagarrienetako bat eta jarraipen egonkorrena egin diezaiokegun datuetako bat; izan ere, bereziki migratzaileen artean ari dira gertatzen aldaketarik handienak gaueko zenbaketetan kontabilizatzeko orduan. Adibidez, 2018. urtean, Frantziako mugan igarotze-egoeran zeuden pertsonak zenbatu ziren, bai kalean zeudenak (urte horretan 104 pertsona zenbatu ziren), bai igarotze-egoeran zeuden pertsonentzako aterpetxeetan zeudenak (124 pertsona). Hala ere, 2020. eta 2022. urteetako zenbaketetan ez dira sartu igarotze-egoeran dauden pertsonak. Asilo-eskatzaileentzako (ETHOS tipologia 5.1 kodea) ostatu-ezagokienek, 2018ko zenbaketan sartu ziren (459 pertsona zeuden ostatu horietan), baina ez zen hala egin 2020an, eta 2022an, berriz, Eusko Jaurlaritzak sortutako 3rak sartu dira, baina ez errefuxiatuak hartzeko estatu-sarekoak. Aitzitik, azken urte honetan, Lehen Urratsa programatik abiatuta bilakatu diren bizitegi-baliabideak sartu dira, eta 118 erabiltzaile zenbatu dira kontaketa gauean. Lehen Urratsa programa pandemian aktibatu zen, eta kalean familia- edo gizarte-babesik gabe zeuden gazteak zituen xede.

2022. urteko azken datuen arabera, Euskadin kalean lo egiten duten pertsonetatik % 86 atzerritarrak dira, eta aterpetxeetan eta harrera-zentroetan lo egiten duten pertsonetatik % 70. Donostian, kalean dauden pertsonetatik, % 95 atzerritarrak dira, eta Bilbon, berriz, % 84. 2016az geroztik, atzerritar jatorriko pertsonak 'etxegabeen' kolektiboaren barruan duten pisu erlatiboa pixkanaka eta etengabe handitu da. Hiru euskal hiriburuetakoko 'etxegabeen' multzoaren barruan, jatorri atzerritarra duten pertsonen proportzioa % 63koa zan 2016an, eta % 78koa, berriz, 2022an, eta kolektibo hori ia % 50 handitu da 2018tik aurrera.

Europa osoan daude migratzaileak etxegabetasun-egoeran, nahiz eta herrialde batetik bestera aldeak dauden egoera erregularizatzeko eta baliabideak eskuratzeko aukeretan. Hala, herrialde batzuetan, hala nola Frantzia edo Italian, etxerik gabeko pertsonen erdiak, gutxi gorabehera, etorkinak dira (Baptista, Benjaminsen, Busch-Geertsema, Pleace eta Striano, 2016).

Pentsa liteke etxegabetasunak lotura estua duela atzerritik datozen migrazio-fluxuekin, baina fluxu horiek berariazko dinamika batzuk dituzte etxegabeei dagokienez, eta dinamika horiek desberdinak dira, nolanahi ere, atzerritarren artean. Esate baterako, 2020an, magrebtar jatorriko pertsonak (Maroko eta Aljeria) Euskadin bizi ziren atzerritar jatorriko pertsona guztien % 12 ziren, baina, urte horretan, atzerritar jatorriko etxerik gabeko pertsona guztien % 67 ziren. Hori dela eta, galdera hau sortzen zaigu: ea Euskadin etxerik ez duten migratzaileek profil zehatzen bat duten.

Profil bereiziak

2009. urtean, Bizkaiko etxerik gabeko pertsonen buruzko azterlan batean (Moreno, 2009), kolektiboaren barruan profil bereiziak zeudela adierazi zen. Horien artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu: etxerik gabeko etorkinak, egoera horretan 2 eta 5 urte bitartean zeramatzatenak, arazo pertsonal handiak zituztenak eta Espainian batez beste 7 urte baino gehiago zeramatzatenak (etxerik gabeko pertsona guztien % 13 ziren); edo, bestela, administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsona gazteak, bestelako arazo pertsonal garrantzitsurik ez zituztenak, eta kalean bi urtetik behera zeramatzatenak (laginaren % 20,5 ziren). Zenbait aldagaitan oinarritutako tipologia bat egiteko helburua ez duten arren, Euskadin egindako gaueko zenbaketan ikusi da bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden pertsona guztien artean segmentazioa dagoela, sexuaren, jatorriaren eta adinaren arabera. Hona hemen azken zenbaketetako datuak.

3. TAULA. ETXERIK GABEKO ATZERRITARREN PROPORTZIOA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

		2016	2018	2020	2022
Emakumeak	Atzerritarrak < 30	2,0	1,0	1,6	1,3
	Atzerritarrak > 30	4,6	6,2	3,0	4,3
Gizonak	Atzerritarrak < 30	20,8	26,9	31,9	32,2
	Atzerritarrak > 30	32,4	35,3	31,6	39,5

Iturria: EAEEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko VI. azterlana 2022

2022ko datuen arabera, talde nagusia 30 eta 54 urte bitarteko gizonezko atzerritarrek osatzen dute, eta 'etxegabe' guztien % 39,5 dira. Haien atzetik, 18 eta 29 urte bitarteko gizonezko atzerritarrak daude (% 32), eta, gero, oso urrun, 30 eta 54 urte bitarteko gizonezko autoktonoak (% 11). 2016az geroztik, 30 urtetik beherako gizonezko atzerritarren multzoak izan du hazkunderik handiena, haien ehunekoak ia 12 puntu egin du gora. Galdera hau egin daiteke: ea pertsona horien gehiengoa bakarrik dauden gazte atzerritarrek osatzen duten. Oso gazteak dira, kasu batzuetan adingabeen babes-sistemaren barruan izandakoak, familia-erreferenterik gabe daudenak. Inkesta beraren arabera, 2022an bizitegi-bazterketako egoera larrian zeuden pertsonen % 20 adingabeentzako zentro batean egona zen noizbait.

Duela gutxi egindako ikerketa batean (Moreno eta Fernández, 2020), kalean dauden pertsona-talde horren gorakada azken urteetan iritsi diren adingabe- eta gazte-kopuru handiekin lotu da. Oro har osasun-egoera ona duten gazteak direla baieztatzen da, eta gehienek beren burua prestatzeko eta gizarteratzeko ibilbide bati ekiteko borondate argia dutela. Artikuluaren egileentzat, printzipioz, gizarte-bazterketa klasikoko egoerarik ageri ez duen kolektibo bat da, eta baliabide ekonomikoen edo bizitegi-baliabideen laguntza eskatzera jotzen du. Hala ere, zenbait kasutan, baliabide horiek ez izateak muturreko zaurgarritasun-egoerak eragiten ditu, bai eta gizarte-bazterketa pairatzea ere.

Beharbada horregatik, 2024-2028 Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako II. Euskal Estrategian, Euskadin familia-laguntzako sarrerik ez duten gazte etorkinak arretarako lehentasunezko profil gisa ageri dira. Estrategia horretan egindako azterketaren arabera, ebidentziek erakusten dute gazte horiek, laguntzen bidez, gizarteratze- eta laneratze-prozesu azkarrak, autonomia eta helduarora igarotzeko prozesu bizkorak gauzatzen dituztela.

Beraz, gako-galdera hau sortzen da: ea zer baliatu behar den egoera horiei aurre egiteko, gizarte-zerbitzuak ala gazteriarren eta etxebizitzaren arloko politikak. Eztabaida zahar bat da: ea pertsona batzuek etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak erabiltzen dituzten beste baliabiderik ez dutelako, eta ea espazio horiek ez al duten pertsona horien egoera okertzen, egoera horri erantzun egokia emango dioten zirkuitu batean sartzen lagundu ordez.

Horri dagokionez, Fitzpatrick-ek (2000), Glasgow-en egindako ikerketa batean oinarrituta, nabarmentzen du etxerik gabeko pertsonen arretarako baliabide orokorretara jotzeak eta azpikultura horretan sartzeak eragina izan dezakeela etxerik gabeko gazteen egoeraren kronifikazioan. Ikerketa batzuek erakusten dute, hain zuzen ere, etxegabetasun-egoeran jarraitzeak eragin oso garrantzitsua duela pertsonen identitatean, beren burua ikusteko duten modua, besteekiko harremanak eta munduarekiko ikuspegia aldatzen baita haiengan (Navarro-Lashayas, 2018).

3. taulan ikus daitekeenez, datuak kontuan hartuta, etxerik gabeko emakume migratzaileen kopurua ia hutsala da. Hala ere, gizarte-bazterketari buruzko estatistiketan, datu txarrenak emakumeenak dira, eta horri pertsona migratzaile izatearen ezaugarria gehitu behar zaio. Duela gutxi egindako ikerketa batek erakutsi zuen nola geratzen ziren emakume migratzaileak prekarietate- eta bazterkeria-zirkulu batean harrapatuta, eta hortik irtetea oso zaila dela (Layna, Goikoetxea eta Navarro-Lashayas, 2020). Gainera, prestakuntza lortzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak direla-eta, pertsona horiek zainketen eta etxeko lanen sektorearekin lotutako lan-nitxoetan aritzea areagotzen dute. Etxeko langile diren emakume migratzaileen errealitateari buruzko azterlan batean, ondorio hau atera zuten: emakume horiek *“zaugarritasun- eta diskriminazio-egoera bereziei aurre egin behar diete, etxeko lanen eta zaintzako zerbitzuen arloko enpleguarekin duten loturagatik eta beren jatorri etnikoagatik; ezaugarri horiek gainerako herritarrekiko desberdintasunak sortu ditzakete, bai gizarte-desberdinak, bai lan-arlokoak, bai oinarritzko baliabideak eskuratzeko orduan”*. (Nogueira eta Zalakain, 2015).

Zergatik ez da esandako guztia islatzen bizitegi-bazterketa larriari buruz aurkeztutako datuetan? Horren azalpena da ezkutuko etxegabetasuna deritzona. Emakumeek pairatzen dituzten abiapuntuko desberdintasunek etxegabetasuna saihesteko ibilbide eta estrategia bereziak sortzen dituzte. Oro har, eremu pribatuan gertatzen diren estrategiak dira, eta hortik dator horiek hautemateko zailtasuna (Mayock, Sheridan eta Parker, 2012). Esan daiteke emakumeek harreman-estrategia gehiago erabiltzen dituztela (Matulič, Pacual eta Zueras, 2020), nahiz eta horiek beren ordaina izaten duten; adibidez, dauden egoerak beti seguruak ez izatea, edo ezkutuko zaugarritasuna egotea.

Madrilen kalean dauden emakumeekin egin berri duten ikerketa batean (Vazquez, Panadero eta Garcia-Perez, 2020), ikusi zen emakume etorkinek indarguneak eta ahulguneak dituztela bertako emakumeen aldean. Alde batetik, arazo handiagoak dituzte dokumentazioa behar bezala izateko, gizarte-laguntza gutxiago jasotzen dituzte, eta familiarekin duten harremana oso mugatua da. Bestetik, etxerik gabeko egoeran denbora gutxiago daramate batez beste, droga-kontsumoa txikiagoa da haien artean, hezkuntza-maila handiagoa dute, eta gertaera estresagarri gutxiago izan dituzte bizitzan.

Migrazioaren faktore bereizgarriak bizitegi-bazterketa larrian

Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruak gora egin du, eta horrek isla handia izan du etxerik gabeko pertsonen estatistiketan (kolektibo horren gehiegizko proportzioagatik), bai eta pobrezia-egoeran zeuden pertsona guztien % 2,7 baino ez ziren jatorri atzerritarreko familiakoak. Proportzio hori modu jarraituan eta egonkorrean handitu da, eta 2020an, % 56,2koa zen. Hala, hogeitaz hamar urte eskasean, aldaketa handia izan da Euskadin; izan ere, oinarri ia erabat nazionalako pobrezia eta prekariedade ekonomikoa izatetik beste era batekoa izatera pasa da, orain atzerriko immigrazioetik etorritako pertsonen familietan biltzen baitira pobrezia eta prekariedadeak eragindako pertsona gehienak (Shershneva eta Fouassier, 2022).

Bizitegi-bazterketaren eta gizarte-bazterketaren arteko loturak arazoak eragiten ditu. Eztabaida ia amaigabea da hori, eta honako hauek ditu ardatz: ea etxebizitza falta den pertsonak gizarte-bazterketa larriko egoeran jartzen dituen faktore nagusia, edo, aldiz, gizarte-bazterketa den gure bizilekua baldintzatzen duen faktorea. Nolanahi ere, gizarte-bazterketaren inguruko azterketa guztietan, etxebizitza aztertu beharreko faktoretzat hartzen da, faktore horri bazterketa-prozesua azaltzeko eman nahi zaion garrantzia dena delakoa izanda ere.

Gizarte-bazterketako egoeran bizi izandako Bartzelonako 348 pertsonaren ibilbide pertsonalak aztertu zituen ikerketa batek (Sarasa eta Sales, 2009) agerian utzi zuen gizarte-bazterketa latza pairatzen zuten pertsonen etengabeko oztupoak izan zituztela beren bizitzan etxebizitza duina eskuratzeko, gaitasun finantzario eskasa zutelako eta etxebizitzaren bat jabetzan eskuratzeko familia-babesik edo -ondaririk ez zutelako.

Migratzaileentzat, gainera, etxebizitza bat izatea ezinbesteko elementua da gutxienean gizarte-berme batzuk lortzeko. Erroldatzea lehenbiziko ezinbesteko baldintza da gizarte-baliabideren batera heltzeko eta administrazio-erregularizazioaren prozesuari ekiteko. Halaber, bizileku egoki bat izatea ere beharrezkoa da familia berregituratzeko prozesu bat abiatu nahi bada, eta etxebizitza oinarriko faktore bihurtzen da etorkinak gizarteratzeko.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestako (EABI) 2018ko datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen multzoan daudela etxebizitza izateko modu ez-seguruenen ehuneko handienak. % 14,2 utzitako etxebizitza batean bizi dira, eta % 26, berriz, partekatutako etxebizitza batean. Inkesta beraren arabera, lanerako baimena

duten pertsonen artean ere, utzitako etxebizitzetan bizi direnen ehunekoa handia da (% 11,2), eta % 23,7, berriz, partekatutako etxebizitza batean bizi dira.

Halaber, etxebizitzarekin lotutako beste zailtasun batzuk ageri dira. Hala, % 34,2k azalera eskasarekin lotutako arazoak dituzte (<20 m² pertsona bakoitzeko); % 19k, itoginak eta hezetasunak; % 14,9k ez du hipoteka edo alokairua ordaindu urtebetean; eta % 16,4 atzeratu egin da edo ordaindu gabe utzi ditu etxebizitzaren gastu arrunten fakturak. Atzerritarren kolektiboaren gehiengoak (% 69,4) adierazi du familiaren hileko diru-sarreraren % 30 baino gehiago bideratzen duela etxebizitzara. Ikusten dugunez, alderdi horiek guztiak ETHOS tipologiaren oinarri diren bizitegi-bazterketaren dimentsioekin lotuta daude.

Espero daiteke atzerritarrek etxebizitza izateko duten arazoa hobetu egingo dela gizartean txertatu ahala. Nahiz eta etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukerak handitu egiten diren etorkinen egoitza-aldia luzatu ahala (Colom eta Molés, 2017), bertan bizitzearen ibilbideak ez du beti goranzko progresioa izaten. Izan ere, zenbait faktorek baldintzatu egiten dute progresio hori: baliabide ekonomikoak izateak, sare sozialak ezarri izanak, administrazio-egoerak, zorpetzeko ahalmenak, etab.

Azaldu al daitezke kapituluan aurkeztu ditugun zifrak zailtasun ekonomikoak eta etxebizitzari dagozkionak soilik kontuan hartuta? Zenbait egilek (Cabrera eta Malgesini, 2003; Morales, Rosario eta Vázquez, 2004; Navarro-Lashayas, 2016) kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk aipatu dituzte:

- **Familiakoak:** Migrazio-sareek migrazio-fluxuen zati bat azaltzen laguntzen dute, baina funtsezkoak dira, halaber, pertsonen integrazioa ulertzeko, harrera-herrialdean bizitzeko laguntza, informazioa, orientabideak eta erraztasunak ematen baitituzte. Hala ere, pertsona askok bakarrik migratzen dute, haien familia jatorrizko herrialdean geratzen da, edo, helmugako herrialdean egonda ere, ezin dituzte deskribatutako funtzioak bete, egoera ahulean daudelako.
- **Gizarte-babesa:** Familiaz harago, migratzaileek laguntza emozionala, ekonomikoa, informaziozkoa eta abar eman diezaieketen pertsonak izan ditzakete inguruan. Oso babes garrantzitsua da, migrazioaren lehen etapetan batik bat. Migratzaileen gizarte-babesari buruzko ikerketek erakusten dutenez, babes-sarea ez da oso zabala izaten, eta, oro har, bizi-baldintza materialetan eragiteko gaitasun txikia duten beste migratzaile batzuetara mugatzen da (Ramírez, García eta Marín, 2002). Etxerik gabeko migratzaileen kasuan, sare sozialen ahultasun hori are handiagoa da, eta, batzuetan, gizarte-baliabideetako profesionalak dira haien babes bakarra (Navarro-Lashayas, 2018). Etxerik gabeko pertsona migratzaileen osaera etnikoan ikusten diren alde izugarriak ere batzuen eta besteen sareetan izan dezakete azalpena; izan ere, komunitate batzuk presentzia txikia dute kolektibo horretan, hala nola Ekialdeko Europatik, Latinoamerikatik eta Asiatik etorritako pertsonak.

- Juridiko-administratiboa: Eztabaida dago ea lan- eta egoitza-baimena izatea faktore erabakigarria den muturreko bazterketako egoeran ez erortzeko. Nolanahi ere, datuek erakusten dute kalean dauden pertsonen artean asko daudela egoera irregularrean (Navarro-Lashayas, 2018), eta hori desabantaila da pertsona horientzat, gainerako herritarren aldean, desberdintasun sozial eta ekonomikoko antzeko egoeretatik atera ahal izateko.
- Lan-arlokoak: Espainiako migrazio-ereduan, lan-gaiek eragin handia dute. Immigrazioa eta lan-merkatua elkarri lotuta daude. Atzeritar jatorriko biztanleriaren okupazio-maila txikiagoak ez dira soilik kolektibo horren langabezia-tasa handiagoekin lotzen, baizik eta, horrez gain, posizio okerragoa dute enpleguaren kalitatearekin lotutako dimentsioan. Lan-merkatuko eta produkzio-sistemako posizioan dauden alde handi horien emaitza da biztanleria okupatuaren hileko ohiko ordainsarian dagoen alde handia.

Etxebizitza familia-etxe bihurtzea da funtsezko integrazio-faktorea (Cortes, 2000). Ikuspegi horretatik abiatuta, bizitegi-bazterketa etxebizitza falta hutsa baino egoera zabalagoa eta hautemanezinagoa da; etxebizitzaren erabileran zehazten da prozesu eskusogenoaren zati garrantzitsu bat, hau da, ostatu-premien gizarte-eraikuntza egituratzen duten baldintzak egokiak ez badira, bizitegi-bazterketako egoera sortzen da. Agian horrexegatik esan zuten hau FEANTSAk jada duela 20 urte Espainiari etxerik gabeko pertsona migratzaileei buruz eskatutako txostenaren egileek (Cabrera eta Malgesini, 2003): *“etxebizitzan laburbiltzen eta adierazten da etorkinak bizi duen egoera soziala. Haren bizitokiak dituen baldintzetan islatzen dira honako hauek: estatutu juridikoa eta legala, lan-jarraitutasuna eta -prekarietatea, gizarte-harremanak, azken batean, migrazio-proiektuan lortutako egonkortasun-maila handiagoa edo txikiagoa”*.

Biztanleria migratzailearen integrazioari buruzko teorialariek asimilazio segmentatua aipatzen dute (Portes eta Rumbaut, 2006), azaltzeko pertsona migratzaileek ez dutela prozesu lineal bat egiten helmugako lurraldean txertatzeko orduan, baizik eta barneratze hori harrera-lurraldeko gizartearen estratifikazio-sistemaren eta taldearen ezaugarrien araberakoa dela. Faktore horien konbinazioa nolakoa, halakoak izango dira gizarte horretan barneratzeko estrategiak. Horregatik, emaitza desberdinak izaten dituzte kolektibo batzuek eta besteek.

Azken 20 urteotan Euskadin etxerik gabeko migratzaileen bilakaera aztertzen dugunean ere antzeko prozesu bat ematen ari ote den galdetu daiteke. Hau da, ea “bazterketa segmentatu” hori gertatzen ari den. Alde horretatik, migratzaileen barruan, biztanle-talde batzuek ostatu-baldintza prekarioak izango lituzkete zenbait aldagaien arabera (adina, jatorria, adingabeen zentrotik igaro izana, eskura dituzten babes-sareak, administrazio-egoera, arazo pertsonalak, prestakuntza eta diru-sarrerak), eta horren ondorioz, bazterketa-nitxo berriak sortuko lirakeke, lehendik zeudenez gain, zenbait kolektiborentzat. Aldi berean, badirudi beste kolektibo batzuek ez dituztela arazo berdinak.

Bibliografia

- Avramov, Dragana (1996). *The Invisible Hand of the Housing Market: A Study of Effects of Changes in the Housing Market on Homelessness in the European Union*. Brusela: FEANTSA.
- Baptista, Isabel, Benjaminsen, Lars, Busch-Geertsema, Volker, Pleace, Nicholas eta Striano, Mauro (2016). *Asylum seekers, refugees and homelessness. The humanitarian crisis and the homelessness sector in Europe*. Brusela: FEANTSA.
- Cabrera, Pedro eta Malgesini, Gabriela (2003). *Inmigrantes y sinhogarismo en España; Informe Nacional 2001-2002*. Brusela: FEANTSA.
- Colom, Andrés eta Molés Machi (2017). "Homeownership and living conditions of the immigrant population in Spain: differences and similarities among immigrant groups". *Housing, Theory and Society*, 34(4), 477-504.
- Cortés, Luis (2000). "La vivienda como factor de exclusión en la ciudad". *Documentación Social* 119, 295-312.
- Edgar, Bill, Doherty, Joe eta Meert, Henk (2009). *European review of statistics on homelessness in Europe*. Brusela: FEANTSA.
- Estatistika Institutu Nazionala (2005, 2012, 2022). *Encuesta a las personas sin hogar (EPSH)*. Madril. Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).
- Estatistika Institutu Nazionala (2006, 2012, 2022). *Encuesta a las personas sin hogar (Centros)*. Madril. Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).
- FEANTSA (2002). *Immigration and homelessness in the European Union. Analysis and overview of the impact of immigration on homeless services in the European Union*. Brusela: FEANTSA.
- Fitzpatrick, Suzanne (2000). *Young homeless people*. New York: St. Martin's Press.
- Layna, Nerea, Gandarias-Goikoetxea, Itziar eta Navarro-Lashayas, Miguel Angel (2020). "Atrapadas en una espiral de precariedad y exclusión: trayectorias de mujeres inmigrantes en programas residenciales para mujeres con menores a cargo". *Zerbitzuan* (72), 19-33.

- Matulič-Domadzič, Virginia, Munté-Pascual, Ariadna, De Vicente-Zueras, Irene eta León-Jiménez, Susana (2020). “‘Life starts for me again’. The social impact of psychology on programs for homeless people: solidarity networks for the effectiveness of interventions”. *Frontiers in Psychology*, 10, 3069.
- Mayock, Paula, Sheridan, Sarah eta Parker, Sarah (2012). “Migrant women and homelessness: the role of gender-based violence”. *European Journal of Homelessness Journal*, 6(1), 59-82.
- Morales, Susana, Rosario, María eta Tezanos, Susana (2004). “Los inmigrantes sin hogar en España: un caso extremo de exclusión social”. *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 55, 45-64.
- Moreno, Gorka (2009). “Características y tipologías de las personas sin hogar en Bizkaia. Hacia un enfoque complejo de la realidad del sinhogarismo”. *Zerbitzuan* (46), 35-44.
- Moreno, Gorka eta Fernández, Iraide (2020). “Sinhogarismo y jóvenes extranjeros en Bilbao: La atención en un contexto de desbordamiento múltiple y secuencial de los recursos”. *Zerbitzuan* 70, 61-70.
- Navarro-Lashayas, Miguel Angel (2016). “El factor diferencial de la migración en las personas sin hogar”. *Migraciones*, 39, 67-95.
- Navarro-Lashayas, Miguel Angel (2018). *Relatos de la calle: Testimonios de migrantes sin hogar*. Madril: Irredentos libros.
- Nogueira, Julia eta Zalakain, Joseba (2015). *La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidado en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Gasteiz: Emakunde. Emakumearen Euskal Institutua.
- Portes, Alejandro eta Rumbaut, Rubén (2006). *Immigrant in America. A portrait*. Kalifornia: Kaliforniako Unibertsitatea.
- Ramírez, Manuel, García, Manuel eta Marín, María (2002). “La elección de fuentes de apoyo social entre inmigrantes”. *Psicothema*, 14(2), 369-374.
- Sánchez, Maria Rosario eta Tezanos, Susana (2004): “Los inmigrantes ‘sin hogar’ en España: un caso extremo de exclusión social”. *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 55, 45-64.

Sarasa, Sebastián eta Sales, Albert (2009). *Una propuesta de análisis de la exclusión social a lo largo del ciclo vital*. La situación social en España III. Programa de Políticas Públicas y Sociales UPF, Fundación F. Largo Caballero, Biblioteca Nueva.

Shershneva, Julia eta Fouassier Zamalloa, Maite (2022). *Tendencias y retos en la integración de la población inmigrante en Euskadi. Análisis de la encuesta de la población inmigrante extranjera en la CAE (EPIE 2018)*, Bilbo: Ikuspegi.

SIIS. Centro de Documentación y Estudios (2012-2022). *Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV*. Donostia, SIIS Centro de Documentación y Estudios.

Vázquez, José Juan, Panadero, Sonia eta García-Perez, Carmelo (2020). Immigrant women living homeless in Madrid (Spain). *American Journal of Orthopsychiatry*, 90(5), 633-643.

